



## BEZEROEN SEGMENTUA

Gure enpresaren zerbitzuak etorkinen integrazioa dihoaz zuzenduta, beraz haiek izango dira gure azken bezeroak. Baina beraiek ez dituzte gure zerbitzuak ordaintzen, gure bezeroak eskolak eta udaletxeak izango dira eta beraiei emandako zerbitzuen bidez lortuko dugu immigranteen integrazioa.



Alde batetik, eskolei emango diegun zerbitzuen bidez, ikasleei baloreak erakutsiko dizkiegu, bai eta etorkinekiko errespetua izaten. Honen bidez, atzerriko familietako umeak ongietorriak sentituko dira eskolan eta ikaskideen artean. Gainera, atzerritarren aurkako bullying tasa jaitsi egingo litzateke. Honek guztiak gelako giro ona sortuko luke eta eskolen izen ona zabalduko litzateke.

Beste alde batetik, udaletxeek gure zerbitzuak kontratatzerakoan, herriko giroa hobetuko litzateke. Guk organizatutako ekintzen bidez, atzerritatek beraien auzokoak hobeto ezagutu ditzazkete eta auzokideen arteko harremana estutu egingo litzateke eta errespetua bermatuko litzateke.